

PSIKOLOGIAKO GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEKO ARAUDIA (UPV/EHU)

1.- SARRERA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, III. kapituluan, graduko ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horiek amaitzeko Gradu Amaierako Lan bat egin beharko dela eta lan hori "tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta" egongo dela.

2012ko maiatzaren 16an UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari buruzko Arautegia onartu zuen, eta 2012ko ekainaren 19ko EHAAan argitaratu zen. Araudi horretan, ikastegiekin garatu beharko dituzten eta Fakultateko edo Eskolako Batzarrek onartu beharko dituzten jarraibide orokorrak ezarri ziren.

UPV/EHUko Psikologiako Graduko Titulua Egiaztatzeko Memorian adierazita dagoenez, Gradu Amaierako Lana "ikasleak derrigorrez egin behar duen jarduera da, 6 kreditukoa, eta laugarren mailako bigarren lauhilekoan egin behar da. *Lanaren helburua da ikasleak bere prestakuntzan lortutako gaitasunak erakustea. Lana idatziz egin eta ahoz aurkeztu behar da, eta horretarako izendatutako epaimahai batek baloratuko du*".

Gradu Amaierako Lana (GRAL) enborrekoa da eta 6 ECTS kredituko balioa du; hau da, 150 ordu, era honetan banatuta:

- Jarduera gainbegiratua: % 6 = 8,5 ordu (6 ordu, gainbegiratze-lanetarako, eta 2,5 ordu, tutoretza programatuetarako).
- Jarduera autonomia: % 93: 140 ordu.
- Ebaluazioa: % 1: 1,5 ordu.

2.- GRAL-EKO GAITASUNAK

- Psikologiaren eredu teorikoak ezagutzea hautatutako gaien, eta haren ekarpenak eta mugak kritikoki balioesteko gai izatea.
- Gizakiaren substratu psikologikoa osatzen duten elementuak identifikatzeko eta sartzeko gai izatea.
- Ebaluazioa egiteko datu garrantzitsuak neurtzeko eta lortzeko gai izatea, datu kuantitatiboak edota kualitatiboak aztertzeko gai izatea, eta landutako gaiaren emaitzak interpretatzeko eta txosten tekniko bat egiteko gai izatea, ahoz edota idatziz aurkezteko.
- Ikergaiaren testuinguruan agertzen diren banakako, taldeko eta taldeen arteko aldeak, arazoak eta beharrak identifikatzeko gai izatea.
- Landutako gaiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertzeko eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.
- Psikologoaren jarduera profesionala arautzen duen lege-esparrua ezagutzea eta printzipio etikoak eta deontologia-kodea aplikatzeko gai izatea.

GRALean ebaluatzen diren zeharkako gaitasunak

- Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, aztertzeko eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.
- Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoan baloratzuz.
- Psikologoaren jarduera profesionala arautzen duen lege-esparrua ezagutzea eta printzipio etikoak eta deontologia-kodea aplikatzeko gai izatea.
- Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

3.- GRAL MOTAK ETA GAIEN ESKAINTZA

Lana bi modutakoa izan daiteke:

1. Practicumarekin erlazionatutako lan bat, hiru eratakoa izan daitekeena:
 - Practicumean egindako jardueren eta erabilitako tekniken oinarritze teoriko eta metodologikoa.
 - Practicumean egindako jardueren balorazio kritikoa, hobekuntzen proposamena edota landutako gaien esku hartzeko programa baten diseinua.
 - Ekintzailtza-proiektu bat
2. Sailek eskaintako gai-zerrendatik abiatuta egindako lana, Practicumarekin zerikusirik ez duena. Motak:
 - Ikerketa, Garapen edota Berrikuntza Proiektua
 - Gai jakin baten berrikuspina eta eguneratze teorikoa edota metodologikoa

Sail bakoitzak gai-zerrenda bana aurkeztuko dio GRALaren Batzordeari, aurreko ikasturtea amaitu baino lehen (ikasturteko lehenengo hilabetean, 2012-2013 ikasturterako), ikasleek eskura izan dezaten beharrezkoa den aurrerapenez. Sailek bermatu egin beharko dute eskaintza bi hizkuntzatan egiten dela.

4.- GRAL-EKO AURRE MATRIKULA ETA MATRIKULA.

Ezinbestekoa da GRALaren aurre-matrikula egitea, gerora GRALaren matrikula eta defentsa egin ahal izateko.

GRALaren aurre-matrikula egiteko, ezinbestekoa da tituluko irakasgai guztietan matrikulatu izatea eta gehienera jota 1., 2. eta 3. mailetako 18 kreditu izatea gainditu gabe.

GRALeko aurre-matrikula GAUR aplikazioaren bidez egingo da, urrian. Ikasle bakoitzak egin nahi duen GRAL mota aukeratu beharko du, eta, hala dagokionean, baita gaia ere, izena eman aurretik. GRALaren Batzordeak tutoreak izendatuko ditu eta irakasleei ikasturte bakoitzean tutoretzapean izango dituzten ikasleen zerrenda emango die.

Ikasleek adierazi beharko dute zer hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi duten lana eta jaso nahi duten tutoretza.

Aurre-matrikula aldatzea: Ikasleek tutorea edo GRAL mota edo gaia aldatu nahi badituzte, 5 egun balioduneko epea izango dute eskaria egiteko. Erantzuna jasotzeko eta, hala dagokionean, tutore berria izendatzeko gehieneko epea 15 egun naturalekoa izango da.

GRALeko matrikula egiteko, ezinbestekoa da ikasketa-planeko gainerako irakasgai **GUZTIAK** gainditu izatea.

GRALeko matrikula GAUR aplikazioaren bidez egin dezake ikasleak, ezarritako baldintzak betetzen dituenean; hau da, Graduak gainerako kreditu guztiak gaindituta dituenean.

Ikasleek matrikulan adierazi beharko dute zer hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) defendatu nahi duten lana.

Prozesua

1. Ikasleek GRALeko aurre-matrikula egitea.
2. GRALaren Batzordeak tutorea eta gaia esleitzea. Irakasle bakoitzari 5 GRAL baino gehiago ez esleitzea gomendatzen da.
3. Ikaslea tutorearekin harremanetan jartzea, prozesua abiatzeko.
4. Ikasleak tutorea edota GRAL mota edo gaia aldatzeko eska diezaiotke GRALaren Batzordeari.
5. Batzordeak ikaslearen eskaria ebatzea.
6. Ikasleak GRALaren behin betiko aurre-matrikula egitea.
7. Ikasleak GRALa defendatzeko eskaria egitea.
8. Tutoreak oniritzia ematea defentsa-eskariari.
9. Ikasleak, Graduak gainerako irakasgaiak gainditu ondoren, GRALeko matrikula egitea.
10. Ikasleak GRALa aurkeztea eta defendatzea, eta dagokion ebaluazioa egitea.

5.- TUTORETZA

Sail bakoitzak GRALaren tutoretza egingo duten irakasleen zerrenda bana egingo du, Psikologiako Graduan dauden GRAL motak kontuan hartuta, eta era berean, ikasleek GRALa euskaraz edo gaztelaniaz egin dezaketela kontuan hartuta.

Irakasleen irakaskuntza-zama ere kontuan har dadin gomendatzen da, ikasle baten tutoretzak 0,25 kredituko irakaskuntza-zama baitu.

Irakasleen zerrenda GRALaren Batzordearen esku jarri beharko da ikasturtea amaitu baino lehen (irailean, 2012-2013 ikasturterako), eta hala, Batzordeak tutoreak izendatu ahalko ditu, ikasleek eskarik egin ondoren (prozesuko 2. puntua).

Irakasle tutore bakoitzari gehienez 5 GRAL esleitzea komeni da.

Tutorearen eginkizunak:

1. Ikasleari laguntzea GRALaren mugak ezartzen, helburu errealistak ezartzen eta prozesua abiatzen.
2. Ikasleari laguntzea egutegi bat eta lan-erritmoa ezartzen.
3. Ikaslea ezarritako helburuak betetzen ari ote den gainbegiratzea.
4. Ikaslearen esku jartzea GRALeko gaitasunak garatzeko behar diren baliabideak.
5. Lanaren gaineko atzeraelikadura egitea, etengabe.
6. Ikasleak GRALarekin lotutako gaitasunak eskuratzen dituela ebaluatzea, errubrika bidez.
7. Txosten bat idaztea, ikasleak GRALa defendatu aurretik.

Prozesua:

Ikasleek GRALaren aurre-matrikulak egin eta tutoreak izendatu ondoren, tutoretza-prozesua hasiko da.

Ikasleak tutorearekin harremanetan jarri beharko du, GRALaren proiektua aurkeztu beharko dio, eta lan-egutegi bat hitzartu eta aurrez aurreko tutoretza-saioen kronograma ezarri beharko dituzte.

Prozesuaren nondik norakoak irakasleak eta ikasleak hitzartu beharko dituzte. Hala ere, prozesuak gutxienez izan beharko ditu: **hasierako saio** bat, lanaren helburuak eta prozesua hitzartzeko eta hasierako zalantzak argitzeko; **jarraipeneko saio** bat, helburuak zer neurritan betetzen ari diren egiaztatzeko eta arazoak konpontzen laguntzeko; eta **azken saio** bat, lana berrikusteko eta defentsa-eskaria egitea hitzartzeko.

Aipaturiko hiru saioez gain, jarraipen zehatzagoa ere egin daiteke, aurrez aurre edo birtualki, tutoreak eta ikasleak hitzartzen dutenaren arabera.

6.- AURKEZTEA ETA DEFENDATZEA:

Ikasleak GRALa idatziz aurkeztu eta ahoz defendatu beharko du, horretarako izendatutako hiru irakaslek osatutako epaimahaiaren aurrean.

GRALa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkez daiteke.

Ikasleak aurkeztuko duen lan idatziak azken notaren % 60ko balioa izango du, eta ahozko aurkezpenak eta defentsak, berriz, % 40ko balioa.

GRALa amaitu ondoren, ikasleak lana defendatzeko eskaria egin beharko du, GAUR aplikazioaren bidez. Lana Ikastegiak aurreikusitako egunetako batean defendatu beharko du.

Aldez aurretik, Ikastegiko Idazkaritzan GRALaren bi ale aurkeztu beharko ditu (bat, paperean, eta bestera, CDan), epaimahaiari emateko eta artxibatzeko.

Deialdiak:

GRALeko matrikula egiten duten ikasleek bi deialdi ofizial izango dituzte ikasturte bakoitzean GRALa aurkezteko eta defendatzeko. Ikasleak lana gainditzen ez badu edo ebaluatzen ez bada ikasturteko bi deialdi horietan, berriro egin beharko du matrikula hurrengo ikasturtean.

GRALa defendatzeko epeak:

Lau aukera emango dira GRALa defendatzeko, eta ikasleek horien artean aukeratu beharko dituzte matrikula bakoitzeko dituzten bi deialdiak. GRALa defendatzeko egunak lau epe hauen baitan aukeratu beharko dira:

1. Hemeretzi egun natural maiatz-ekaineko ohiko deialdiko azterketak amaitu ondoren.
2. Hemeretzi egun natural ekain-uztaileko ezohiko deialdiko azterketak amaitu ondoren.
3. Iraileko azkeneko astean eta urriko lehenengo astean.
4. Hemeretzi egun natural abendu-urtarrileko ohiko deialdiko azterketak amaitu ondoren.

GRALa aurkezteko eta defendatzeko formatua:

GRALa poster formatuan aurkeztu beharko da, dagokion epaimahaiak ebaluazioa egiteko:

Ikasleak poster bat aurkeztuko du, non GRALaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaltzen diren. Epaimahai bakoitzak deialdi bakoitzean ebaluatu beharreko posterrak aurkeztu egin beharko dira, epaimahaiak berrikus ditzan. Ondoren, ikasle bakoitzak bere posterraren aurkezpen labur bat egin beharko du, 5 bat minutukoa, eta epaimahaiak, egokitzat jotzen badu, egindako lanari buruzko galderak, azalpenak, iruzkinak eta iradokizunak egingo ditu.

7.- EBALUAZIOA, KALIFIKAZIOA ETA ERREKLAMAZIOAK:

Ebaluazio-epaimahaia:

Sail bakoitzak gutxienez epaimahai bana izendatuko du hizkuntza ofizial bakoitzeko, eta epaimahai bakoitzak hiru irakasle eta ordezeko bat izango ditu. GRALa ebaluatzeko izendatutako epaimahai kopuruari dagokionez, gutxienez epaimahai bana egongo da Derrigorrezko Kanpo Praktikak dituen arlo bakoitzeko eta Sailek eskaintzen duten gai arlo bakoitzeko.

Sail bakoitzak tutoretzapean hartzeko ardura duen Derrigorrezko Kanpo Praktikekin eta eskaini dituen gaiekin erlazionatutako GRALak ebaluatzeko beharrezkoak diren epaimahai guztiak izendatu beharko ditu, bi hizkuntza ofizialetan.

Epaimahai bakoitzean epaimahaiburua eta idazkaria izendatuko dira, ohiko irizpideei jarraiki (irakasleen kategoria eta antzintasuna).

Ebaluazio-epaimahaiaren eginkizunak:

1. Aurkezturiko lanak eta GRALaren aurkezpena eta defentsa aztertzea.
2. Ikasleak aurkezturiko lanaren arabera, GRALarekin lotutako gaitasunak eskuratu ote dituen baloratzea.
3. Atzeraelikadura egitea, gaitasunak hobetzeko.
4. Lanaren balorazioa egitea, errubriken eta azken puntuazioaren bidez.

Ebaluazioa:

Ikasleak bere azalpenak eman ondoren, eta tutoreak egindako txostena ikusi ondoren, epaimahaiak dagokion nota jarriko du, GRALaren irakaskuntza-gidan argitaratutako ebaluazio-irizpideen arabera.

Tituluko gainerako irakasgaietan bezalaxe, GRALeko kalifikazioak honako hauek izango dira: gutxiegi (0-4,9), nahikoa (5-6,9), oso ongi (7-8,9) eta bikain (9-10).

GRALaren Batzordeak ohorezko matrikula eman ahal izango die 9ko kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei, epaimahaiak hala proposatu ondoren.

Ikasleak gutxiegi atera badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiak, ebaluazioa berriro egiteko. Tutoreari txosten horren kopia bat bidaliko zaio.

Ebaluazioaren lehen berrikuspena epaimahaiak berak egingo du, eta ikaslea erabakiarekin ados ez badago, dagokion batzordeak egingo du kalifikazioaren berrikuspena.

8.- PROZESUAREN KOORDINAZIOA

Prozesuaren funtzionamendua eta gainbegiraketa bermatzeko, **GRALaren Batzordea** eratzeko proposatu da. Batzorde horrek GRALaren **koordinatzaile** bat izango du (tituluaren arduradunak beteko du eginkizun hori), eta baita Ikastegiko sail bakoitzeko kide bana ere.

Batzordearen eginkizunak:

1. Sailek egindako gai-eskaintza koordinatzea.
2. Tutoreen izendapena koordinatzea.
3. Aurre-matrikulako aldaketa-eskariei erantzutea.
4. Epaimahaiei laguntzea ebaluazioa antolatzen.
5. Prozesuari buruzko erreklamazioak jasotzea eta ebaztea, ahal den neurrian.